





Bosgarren finaleko txapela ere etxera ekarri nahi du Patxi Zeberio

ELDUAIN ▶ Binakako Faustino Txapelketako finala jokatuko du gaur, Auzmendi bikote duela, Ezkurra-lonen aurka; «txapela janzteak da gure asmoa, eta ez badugu lortzen maila ona eskainita izan dadila», dio ▶ 6



Patxi Zeberio, Zeberio II.a. J.U./ARP



Naturaren kolore anitzak, margolanetan islaturik

TOLOSA ▶ Alejandro Tapiaren *Naturaren ildotik (1960-2005)* pintura eta eskultura erakusketa ikusgai da, hilaren 28ra arte, Aranburu Jauregian. Izenburuak dioen bezala, naturaren koloreak jaso nahi izan ditu artistak bere lanetan eta, era berean, sekretuak agerian utzi. I. ETXEBESTE ▶ 2

LEITZA ▶

Ihoteetarako txartelak eskuratzeko azken egunak

Larunbat eta igandeko otorduetarako dira ▶ 7

LEITZALDEA ▶

Laneko eta familiako bizitzak bateragarri egiteko

Laguntzen berri aritu da Cederna-Garalur ▶ 7

TOLOSA ▶

Flamenko doinuak Fronton kafetegian

D'Callaos taldearen emanaldia ▶ 3

ALEGIA ▶

Eguberrietako Pilota Txapelketan, 64 haur eta gaztetxo lehiatzen

Intxurre Pilota Eskolak antolatu du, 4 eta 14 urte bitartekoentzat ▶ 5



Txapelketan saria jaso zuten pilotariak, Elorri pilotalekuan. HITZA

KULTURA ▶

Naturaren ildotik, kolore anitz ikusteko

Alejandro Tapiaren pintura erakusketa ikus daiteke Aranburu Jauregian

IRATXE ETXEBESTE

«Koadro onenetan gertatzen da: gure lehendabiziko bihotz-begiek harrapatzen dutenaren barne-muinetan beti egon ohi da zerbaite gehiago. Pintatzen dena eta pintatutakoaren bihotzean pintatu gabe, baina subjektuarekin gertatzen dena. Bizitza ezkutua. Gure subkontzientean basoko hotsak, jolasak, labirintoak, keinu eta fereka ahaztuak, sagarrondoan itzalpean izandako ametsak, haurtzaroren beso delikatuetan bizi izandako ilusio itzulezinak. Benetako arteak ikusleari iradoki eta erakutsi behar dion misterio harrapaezin hori». Hitz horiek baliatu ditu Anjel Lertxundik Alejandro Tapiaren *Naturaren ildotik (1960-2005)* izeneko erakusketaren hitzaurrea egiteko. *Bizitza ezkutua* jarri dio izena, eta erakusketa ikusgai dago egunotan Aranburu Jauregian.

«Koloreak bere sekretuak ditu. Eta konposizioak. Eta formak. Baina pintorearen begiradak ere bai, baditu bere sekretuak, pintoreak bere begiradaren eskarmentuz ikasi eta ikusi baitu hori guztia. Bere lanaren eskarmentuz daki pintoreak naturak ezkutuan dituela altxor preziatuak, itzaletan jaiotzen diren bideak, gauaren horizontean esna dauden basoko ametsak, artasoroko orrietan txirikordatutako oroitzen etxetiar bezain iheskorak». Ezkutuko altxor horiek agerian jarri ditu Tapiak bere koadroen bitartez. Koloreak bezala. Formak bezala. Ikusle-

aren begietarako. Eta horrelaxe azaltzen du Lertxundik Tapiaren jarduna: «Sekretuak ezkutan daudela gozoen? Ez ginateke gizakiak sekretu horiek harrapatzen saiatuko ez bagina. Naturaren eta forma artistikoen sekretuek ez dute beren mundua utzi, guregana hurbildu eta beren izaera manifestatu beharrik, baina guk bai. Gu gara —pintorea eta bere lanaren maitaleok— sekretu horiek ezagutzeko premia dugunak. Bizitza jokoan bagenu baino gehiago interesatzen zaigu lehia hori, gu gara naturaren iturritik betikotasunaren eda-bea edan eta mozkortu nahi genukeenak».

Tapiaren pintura, «mugan»

Lertxundiren aburuz, artistak «badaki ez duela pinturak ezkututzen duen misterioa argitzea lortuko»; hori gauza jakina dela. «Hala ere, pintatzen segitzen du nahiaren eta ezinaren arteko muga horretan. Mugan». Alejandro Tapiaren pintura «figurazioaren eta abstrakzioaren mugan» ikusten du: «Argiaren eta abstrakzioaren mugan dago. Argiaren eta itzalarenean. Erakusten eta iradokitzen digunaren arteko muga lanbrotzuan. Ebidentziaren eta misterioaren arteko tartea sakratuan, sakratuak mugan bakarrik eraiki baitezake bere aldea».

Izan ere, misterioan eta naturaren sekretuetan sinesten du Alejandro Tapiak. «Hor darama bizitza osoa, ikusten duena pintatuz ikusten ez dena jaso-



Pintura eta eskultura. Alejandro Tapiak askotariko koloreak erabili ditu bere koadroak egiteko; hala ere, batzuk zuri-beltzean egindakoak dira, argazkikoa bezala. Aranburu Jauregiako erakusketa aretoan margolanak eta eskulturak nahastu ditu egileak naturatik hartutako elementuekin. I. ETXEBESTE



Sekretuak. Naturaren sekretuak agerian uzten ditu Alejandro Tapiak bere lanetan. I. ETXEBESTE



Natura. Zuhaitzak, ibaiak, basoak... askotariko elementuak margotu ditu Tapiak. I. ETXEBESTE

tzen». Gisa horretara margotu ditu ibaiak, basoak, zuhaitzak, herriak... eta erretraturen bat edo beste ere bai.

Elementu horien guztien ezkutuan, ikusi ere egiten ez diren ezaguriak bildu ditu Tapiak bere koadroetan. Koloreak, formak, zirrarak... artea maite dutenen eskura jartzeko. Lertxundiren esanetan, «es-

kertzeko» da ahalegin hori, eta hauxe esan nahi die erakusketa bisitatzeko asmoa dutenei. «Ikusle, koadroei arreta pixka batez begiratzen badiezu, bizitza ezkutua deskubritzen hasiko zara hari, hosto, filamentu, labirinto, bidegurutzetako horien artean, sujerituta gelditu den mundu iheskor bezain erretratu».

FITXA ▶

Gaia. Alejandro Tapiaren *Naturaren ildotik (1960-2005)* pintura erakusketa.

Eguna. Hilaren 28ra bitarte, astelehen eta jaiegunetan izan ezik.

Ordua. 17:30etik 20:30era.

Tokia. Aranburu Jauregia.

urteurrena ▶

Lehenengo urteurrena

Ibai Agirretxe Salsamendi
gaztea

Gorotzenetik Bearrirako bidea ez dek berdina hi gabe, ardiak gora eta behera ibiltzen dizkiagu hik erakutsitako bidetik. Ez zaiguk ahaztu, eta ezta ahaztuko ere.

Bere gurasoak, anai-arrebak eta amamak

Haren arimaren alde otoi bat eskatzen dizute eta arren etor zaitezte BIHAR, IGANDEA, EGUERDIKO 12:30ean, ERREZILGO parroki elizan egingo den urteurrenko mezara. Aldez aurretik, mila esker.

ERREZIL, 2006ko urtarrilaren 14a



hilberria ▶

Juli Azkune Eraso
Iekaima
(Kristo Erregearen eskriba)

2005eko abenduaren 28an hil zen Navas de Riofrio herrian (Segovia), 74 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

—Golan bego—

Betirako gure bihotzean izango zaitugu

Anai-arrebak: Benito Azkue (jesuita), Miguel Azkune eta Manoli Alberdi. Jose Azkune eta Mila Sudupe, Maritxu Azkune (Iekaima KEE), Maianjeles Azkune (Iekaima KEE), Ignacita Azkune (Iekaima KEE); osaba-izeba; ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otoi bat eskatzen dizute eta arren etor zaitezte BIHAR, IGANDEA, EGUERDIKO 12:30ean, AZPEITIKO parroki elizan egingo den elizkizunera. Aldez aurretik, mila esker.

Helbidea: Errekarte baseria (Loiola auzoan).
oharra ▶ lur ematea Navas de Riofrio herrian egin zen.

AZPEITIA, 2006ko urtarrilaren 14a



▶ hilberriak
▶ urteurrenak
▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko hitza.info



MUSIKA ▶

Flamenko doinu dantzagarriak

D´Callaos taldearen emanaldia izango da entzungai gaur, 23:30etik aurrera, Fronton kafetegiko taula gainean

NOELIA LATABURU

Tolosako Udalak urtarrilerako antolatzen dituen kultur ekitaldi eta jardueren barruan kontzertu berezia izango da gaurkoan. Fronton kafetegiko taula izango da eszenatoki, eta bertan D´Callaos taldea ariko da, 23:30etik aurrera.

«Dantzagarria eta freskagarria» den flamenko estiloa lanzen dute gazte kataluniar hauek. Gaztetatik murgildu ziren musika munduan eta hainbat talde izan dituzte erreferente haien estiloa finkatzeko, Ve-

nero, Pata negra, Triana eta Martires, besteak beste.

Bestalde, musikak ez du etenik Tolosan eta gaurkoan ere Bonberenean beste kontzertu batek hartuko du protagonismoa. Asgarth taldearen eskuetik. Talde donostiarrak bere azken diskoaren kantuak aurkeztuko ditu, 22:30etik aurrera, zuzeneko kontzertuan. *Garrasia* du izena eta iaz plazaratu zuten. Aurreko hiru diskoetako abestiekin (*Jainkoen egoitza*, *Etorrizunaren sustraia* eta *III*) tartekatuko dituzte, halaber, kanta hauek.



D´Callaos taldea. HITZA

GUTUN@K ▶

▶ izena eta herria adierazi; HITZak gutunak mozteko eskubidea du

Toki telebistan ere, aukera galdua euskararentzat

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Hizkuntza Politikarako sailburuorde Patxi Baztarrikak honela zioen: «Aukera oparora irekitzen zaio euskarari tokiko telebisten esparruan» (TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA, 2006-01-08). Ondo aztertzeko badugu gaia, oharretara Jaurilaritzak euskarazko eskaintza sustatzea baino eskaintza elebiduna sustatzea erabaki duela eta eskaintza elebiduna sustatzeak gaztelania indartzea ere esan nahi du. Horrela, gaztelaniarik gabeko euskarazko toki telebistak bermatzeko aukera galtzen utzi du. Ze, tokiko telebista zerbitzuaren prestazioak zerbitzu publikoaren izaera du, eta gauzatzeko administrazioaren baimena behar. Eta baimenak emateko dekretuan, Jaurilaritzak euskarazko eskaintzaren betebeharra eska zezakeen gaztelaniarik gabe, balizko 200 telebista kateetatik gutxienez 100ean, baina kate guztietan gaztelaniari atek irekitzeko aukera hobetsi du lizentziak emateko orduan.

Begira dezagun zein den euskararen egoera 25 urteko hizkuntz politikaren ondoren telebistaren arloan: EAEn «tokiko telebistei erreparratzea nahikoa da ikusteko gehienek gaztelania hutsean emititzen dutela... %10 da euskarak beretzat gordetzen duen batez bestekoa» (Baztarrikak, HITZA, 2006-01-08an). Egungo Euskal Herriko 18 kate nagusiak kontuan hartuz gero, ETB1 da euskarari hutsen emititzen duen

bakarra. ETB1 kateak, 2004 urtean, %5,3ko batez besteko audientzia izan du. Audientziaren bilakera aztertuz gero, ETB1 euskarazko kateak %5,5eko audientzia izan zuen orain dela 11 urte; beraz, azken 11 urteotan ETB1 euskarazko telebista katearen audientzia ez da deus ere igo (erabili.com, 2005-05-09).

Euskarak bizi duen egoera minorizatu larri honetan, EAJren apustua euskarazko eskaintza baztertzeko eta eskaintza elebiduna sustatzea izan da: «Enpresa zein erakunde pribatuek kudeatutako tokiko telebistek zerbitzu eremuari dagokion euskaldun indizearen baliokidea izango den euskarazko programazioa eskaini beharko dute». Era hori betetzeko 10 urteko epea dute. Erabaki horrekin, zer gerta daiteke? Enpresa pribatu handiek, adibidez, Vocento, Localia, Local Media, Ser Cope... bere merkatu kuota hartu nahi izango dute ikusle gehien lor ditzaketan eremutan; hiriburuetan, jenderik handiena biltzen delako.

Hiriburuetan euskaldunen indizeak honako hauek dira: Bilbon, 15,5; Gasteizen, 14,9; Donostian, 34,7 (euskararen datu basea 2001). Hortaz, enpresa pribatu handiek euskarari emango dioten lekua indize horien baliokidea izango da; beraz, erdarari emango diotena baino gutxiagoa. Eta toki askotan jende gehienek ikusiko duten lekutan ez da gaztelaniarik gabeko euskara hutsezko toki telebista digitalik izango. Era berean, euskaldunak eragin kaltegarri horiek saihesteko, Batasunak honakoak proposatu zuten: Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan,

Toki Telebistak garatzeko 15 barruti aurreikusituz, eta «barruti bakoitzean lau telebista kateetarako tokia izango denez, gutxienez euskaraz bi telebista izateko» eta beste bietan kuota ezartzea eta euskaldunen portzentajea handiagoa denean ehuneko hori betebeharra izatea (Berria, 2005-11-17).

Tolosaldeko Toki Telebista barrutiari dagokionean, berriz, Tolosaldeko Batasunak bat egiten du TEPE eta EBPNren Jaurilaritzaren Batzordeak 2005-12-13an hartutako erabakiarekin. Honela dio «tokiko telebistak jartzeko lizentziak dagokien —Tolosaldeko lau daude izendatuta—, kontuan izanda erdarazko kateak asko izatez gain, gehiago izateko bidean direla, eta Tolosaldea eskualde euskalduna dela... Honakoa erabaki du Batzordeak: Tolosaldean jar litezkeen lau telebistak euskarazkoak izan daitezkeen. Tolosaldeko udalek eskaera egitea Eusko Jaurilaritzari, bera baita hizkuntzaren gaia arautu behar duena».

Globalizazioaren garaian Jaurilaritzak garatzen duen menpeko hizkuntz politikak ez du balio Euskal Herria euskalduntzeko. Frantsesa eta gaztelania babestu eta sustatzen dituzten indarrak handiagoak direlako euskarari babestu eta bultzatzen dituztenak baino, 25 urte igarota, euskarak telebista esparruan dituen ikusleentzuek ikusita ez dago pozik egoteko elementu objektiborik eta egoera oso larria da komunikazioaren jendartean gauden sasoi honetan. Hala ere, Jaurilaritzak eta EAJK erdararik gabeko euskarazko telebista digitalik ukatu dute

Arabian, Bizkaian eta Gipuzkoan. Galtzen utzi dute aukera eremu horretarako eskualdeetan tokiko telebistak euskaraz bermatzeko, herritarrei euskarazko aukerak emateko eta euskazko ikusentzuek irabazteko.

Hizkuntza Politikarako sailburorde Baztarrikak aipatutako artikuluan Kataluniaz egiten duen aipamenari buruz, artikulua honekin esandakoaz gain, gogorazti nahi dugu katalanen ezagupena betebeharra dela Estatutean. Ea ba noiz jasotzen den euskararen betebeharra ere Ibarretxe planean eta Gasteizko Legebiltzarreko egitasmoan. Horretarako, Batasunak bere laguntza osoa eskaintzen du. Baina Jaurilaritzak eta EAJK ez dute hizkuntza politikari errotik aldatzeko borondatearik eta lehengo akatsetan oinarritutako bidean jarraitzen badu, euskararen normalizazioa prozesua ez da irabazpidean jarriko. Eta aurrera ez egitea atzera egitea da, globalizazioak indartu eta azkartu egin duelako hizkuntzak galtzeko arriskua. Beraz, orain arteko menpeko hizkuntza politikari adabakirik jartzeak ez du balio. Hizkuntz politikaren eredu berria derrigorrezkoa da nazio identitate euskalduna berreraiki eta Euskal Herria euskalduna berrosatzeko zappi lurraldeetan.

EAJrekin Euskal Herria euskalduna lortzea zaila izango da, ezinezkoa ez bada. Konpromiso politikori baztertzeko, inon gauza ez den elebitasun sozialaren aitzakia planteatzen duelako. Euskarak behar dituen gutxiengoan azpitik dagoela jakinda, hizkuntz politikari PSOErekin adosten duelako, hiru herrialdeko administra-

zioa kudeatzen truke. Euskarak aurrera egiteko baliatu behar dituen aukerak galtzen uzten dituelako. Euskararen normalizazioa prozesua eperik gabe norbanakoen bizkarren gain uztea baikoerregia delako. Euskalgintza sarritan baztertu eta bere lana oztopen duelako. Euskararen instrumentalizazio politikoa praktikatu duelako. EAJren interesak euskararen gainetik inportzen dituelako.

Eraginkorrak izateko adostasun soziala, politiko eta instituzionalaren bidetik ibiltzea ezinbestekoa da. Behetik gora, jendartetik instituzioetara eta goitik behera, instituzioetatik jendartera. Konpromiso eta ahalegin handiagok ezinbestekoak dira denon aldetik. Baina horretarako, urrats ausartak eta zuhurrak eman behar ditugu, hizkuntz politikari berriaren alde gauden guztiok batera, ardatz nagusi bezala hartuta honako oinarri hauek: euskararentzat lortzea Euskal Herria osoan, gaztelaniarik eta frantseserik, bakoitzak bere estatuan, duten berdintasunezko estatusa eta parekotasunezko egoera eremu juridikoan, politikoan eta soziolinguistikoan.

Batasunak, egungo hizkuntz politikari ereduaren aldaketa burutzeko, eragile politikoki eta sozial guztien arteko elkarrikeria eta akordioaren bidez, unibertsaiki onargarriak diren oinarri juridiko horiek planteatzen ditu, Euskal Herriko eta euskal herritarren hizkuntz eskubide guztien errespetua lortzeko.

JOSUNE AGIRREZABALA,
TOLOSALDEKO BATASUNAREN
IZENEAN ▶ TOLOSA

iragarki laburrak ▶

Laborategia. Plaza libreak: teknikariak, ikertegiko laguntzaileak, Eusko Jaurilaritza. Informazioa doan. 943 31 37 82.
Ohar garrantzitsua. Urritasun fisikoren bat baldin baduzu, lor ezazu

lanpostu finkoa. %5 erreserbatua. Informazioa doan. 943 31 37 82.
Peioiak. Obrak, gidariak, zabor biltzaileak, garbitzaileak.
Udalebetarako. 943 31 37 82.
Gidariak. Hurrengo lanpostuak Foru

Aldundirako. Kontratu mugagabea. 943 31 37 82.
Suhiltzaileak, udaltzaingoa. Plaza biltzaile adalebetarako.
Informazioa doan. 943 31 37 82.
Garbitzaileak. Lanpostu finkoak:

erakin publikoak, ikastebetak, erietzak. Astelehentik ostiralera, 08:00etatik 15:00etara.
Informa zaituzte. 943 31 37 82.
Presazkoa. Haur zaintzaileak eta haur eskoletarako hezitzaileak behar

dira. 943 31 37 82.
Administratib laguntzaileak. Plaza libreak udalebetarako. 1.200 euro. Lanaldia: astelehentik ostiralera, 08:00etatik 15:00etara.
Informazioa doan. 943 31 37 82.

GUTUN@K ▶

▶ izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

Anoetako Udalean kalitatea eta efikazia

Orain urtebete irakurri genuen Anoetako Udaleko kontabilitateak oso ondo funtzionatzen zuela, buru-belarri kontuak eguneratzen jardun zutela, beste lan guztiak baztertuz, baina lortu zutela dena ondo jartzea, asietoa eta abar, eta handik aurrera ondo joango zirela gauzak.

Gauzak ondo egotea ona da gutzintzat, baina ez zigun si-

nesgarritasun handirik eman idatzi hark.

Zoritxarrez konfirmatu egin da aukerarik txarra: gaur egun kontabilitatea lehen baino askoz okerrago dago; beraz, ez da ezer egin kontabilitatea hobetzeko (zerbait egin behar bazen) eta idatzi hura tapadera hutsa zen Anoetako PNVk Udala gestionatzeko inkapazitatea estaltzeko. Nola azaldu bestela 2005eko martxoan onartua izan behar zena lege 2004ko likidazioa azaroen onartzea?

Zergatik ez da onartu oraindik 2004ko kontu orokorra? Ez

da egin? Zergatik? Ez al zego- en dena eguneratua?

Erabaki dute berriro ere in- puzto eta tasen igoera, Anoet- tarrok Auzolanean platafor- mak aurkeztutako alegazioak kontutan izan gabe, inongo az- terketa ekonomikorik egin gabe. Alkateak dio herritar guztiek egin behar dutela es- forztu ekonomikoa proiektuak aurrera ateratzeko. Diru arazo- ak omen ditu Udalak, baina di- rudienek alkatetzak ez dauka zerikusirik Udalarekin, berak ez dauka arazorik hilerok- hilerok 2.500 euro inguru (urtean, le- hengo 6.000.000 pezeta ingu-

ru) poltsikoratzeko Udalari es- kaintzen dion lan jardueraga- tik (%50 inguru, alegia, astean 17-20 ordu inguru).

Denok estutu behar ditugu gerrikoak, inpueto eta tasa gehiago ordaindu, baina alkate eta zinegotzien soldatak 2005- eko aurrekontuetan %5,55eko igoerarekin onartu dira.

Udalak egin al du beste ezer diru sarrerak bilatzeko? Honetarako erabili nahi dute *apartheid*-a, lege arrotzen ait- zakiak karguak lapurtuz. Ez dute nahi inork kontrolatu dit- zian. Eta efikazia gaiarekin ja- rraituz, abenduan aurrekon-

tuak onartu dira, baina 2005eko aurrekontuak. Anoet- tako Udalean abenduan eraba- kitzen da urte horretan zer egin behar den. Hori al da prebisioa eta kalitateko gestioa? Berriro erru guztia aurreko legealdia- rena da? Hori esan dezakezue eta frogatzen saiatu, baina jada inork ez dizue sinisten. Lagun- tza eskaini eta ez duzue onar- tzen, gure proposamenak baz- tertu egiten dituzue, kritikarik ere ez duzue nahi... nora goaz zuekin?

INAKI TURRIOTZ ETXERIKO ETXERIKO, ANOETARROK AUZOLANEAN HERRI PLATAFORMAREN IZENEAN ▶ ANOETA

VILLABONA ▶ EUSKARA

Euskarari baiezkoa ematea

Bai Euskarari Ziurtagiria sustatuko du Galtzaundik herriko 30 enpresetan

IMANOL GARCIA

Galtzaundi Euskara Taldeak, Villabonako Udalaren babesarekin, Bai Euskarari Ziurtagi- riaren sustapena egin du uda- lerriko 30 enpresetan. Etzi ekingo dio Nora Olano Gal- tzaundiko Euskara teknikariak bisitak egiteari. Bien bitartean, Udalak prestatutako galdetegi bat egingo die Olanok enpre- sei, kanpo harremanetan ari- tzen diren langileen euskara

maila jakiteko, hau da, enpresa bakoitzak zerbitzuak euskaraz emateko duen gaitasuna neur- tzeke.

Arrazoi asko daude enpre- sek Bai Euskarari Ziurtagiria eskuratzeko. Alde batetik, bai euskararekiko bai euskaldu- nekiko erantzukizun soziala, hots, enpresek normalizazio- ren bidean laguntzea. Kalitatea eta lehiakortasuna da beste arrazoiak, egun euskara balio erantsia baita, kalitatearen



N. Goikoetxeak Bai Euskarari Ziurtagiria eskatu du Bidaiderako. i.e.

adierazpide. Egungo erreality- tera egokitzea da bestea. Eus- kal Herrian hizkuntza egoera ezberdinak bizi ditugu. Egoera hauek etengabe aldatzen ari direnez, enpresak egoera berri horietara egokitzeke gaitasuna izatea arrakastarako giltzarria izango da. Bestade, gizarteak gero eta euskaldunagoa da. Merkatu potentziala handitzen ari da eta eskaerari erantzute- ko gai izan behar da. Beraz, Bai Euskarari Ziurtagiria eskura-

tuz eta erabiliz herritar hauei ere erantzun diezakeela eta horretan saiatzen ari dela era- kuts dezake enpresak. Horren harira, euskara darabilen era- gile bat gertuago sentitzen du gizarteak. Beraz, ziurtagiria eskuratuz eta erabiliz *bertako*- tzeke prestutasuna erakutsi de- zake enpresak. Beste argudio bat ehunka gizarte eragile in- plikatu dituen ambizio handiko prozesu arrakastatsu batean parte hartzea da.

«Euskarari laguntzea»

Merkataritza alorrean Siadeco enpresak egiten du ziurtagi- ren sustapena eta egun Villa- bonan bost komertzio dute: Eizmendi Armatagia, Irukide

inmobiliaria, Labezain okinde- gia, Ogi-Goxo okindegia eta Ar- goin taberna. Azken honek ja- bez aldatu du, eta ikusiko da aurrera begira ziurtagiria izat- en jarraitu nahiko duten. Beste birek, Bidaide bidai agentziak eta Shepherd's tabernak, ziur- tagiria eskatu berri dute.

«Euskararekin ikusi behar duenaren inguruan ibili izan naiz», dio Ogi-Goxo okindegiko Mari Carmen Izuetak. «Lehen ere harremana izan dut Udale- ko Euskara zerbitzuarekin eta Bai Euskarari Ziurtagiria esku- ratu nahi nuen galdetxean, se- gituan eman nuen izena. Gai- nera, euskarari bizi puntu bat eman behar zaio merkataritza- tik». Gabi Ormazabalek, Shep- herd's tabernako nagusiak on- dokoa dio ziurtagiria eskatze- ko argudiatzerakoan: «Euska- rari laguntzeko beti prest izat- en naiz. Eta bere alde egin dai- tekeena aurrera eramaten saiatzen naiz». Bidaideko Ne- rea Goikoetxeak dioenez, «beti saiatzen naiz euskaraz egiten eta lehenengo hitza euskaraz egiten diet bezeroei. Helburua jarriz gero, gehiago motibatzen zara. Handizkariak liburuxkak gazteleeraz bidaltzen dituzte eta, beraz, askotan ezin da eus- karaz egin nahi duzun guztia. Nire eskuetan dagoena euska- raz egiten saiatzen naiz».

Villabona - Kultura

HAUR ANTZERKIA

GAR PRODUKZIOAK

"Eujenia ardiaren bidaiak"

URTARRILAK 15 - Igandea
ARRATSALDEKO 5etan
GUREA ARETOAN

Udal Kultura Batzordea

Gipuzkoako Foru Aldundia
E.A.S. (Euskadiko Antzerki Sarea)

Urtarrilak 14ean Txotx garaiari hasiera emango zaio.

ISASTEGI
sagardotegia

Larunbat eguerditan irekita

Isastegi Sagardotegia, S.L.
Aldaba-Txiki auzoa, 15 A - TOLOSA
Tel.: 943 65 29 64

▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Inkesta.

Webgunean dagoen galdera honakoa da: Urtarrila maldan gora egiten den hilabetea omen da. Nola ari zaizu egiten zuri? Orain arte jaso diren erantzunak, batez bestekotan, hauek dira: oso arina (%82); arina (%5); ohikoa (%5); gogorra (%4); oso gogorra (%3).

ALEGIA ▶ PILOTA

Eguberrietako Pilota Torneoa jokatu dute haur eta gazteek

Intxurre Pilota Eskolak antolatuta, 4 eta 14 urte bitarteko 64 pilotari aritu dira



Alegiako Eguberrietako Pilota Torneoa sarituak izan ziren pilotari gazteak, Elorri frontoian. HITZA

NEREA URBIZU

Abenduaren 26an eman zioten hasiera Eguberrietako Pilota Txapelketari Alegian. Lau urteko neska-mutilak ikusi ahal izan ziren egun horretan jokoan, larruzko pilotari gogor ematen. Infantilek ere jokatu zuten txapelketan; izan ere, 4 urteatik hasita eta 14 urtera arteko pilotariak lehiatu ziren hitzorduan.

Prebenjaminen ligaxka sis-

temari jarraikiz jokatu zuten; hau da, denek denek kontra, eta horietan aurreneko biak geratzen zirenak finalera pasatzen ziren. Benjaminetan 12 tantotara jokatu zuten. Infantiletan, bestalde, horrenbeste bikote izatearekin beste sistema bat planteatu zuten antolatzaileek: bai buruz buru eta baita binaka ere, eta puntu gehien lortzen zituen taldea txapeldun izanen zen. Hiru talde sortu ziren eta beraien artean denek

jokatu zuten, pilota toke erdi-koak erabiliz.

Maila honeta, hain zuzen ere, D taldea izan zen nagusi, 18 tanto lortuz: Beñat Urretabizkaiak, Beñat Zabalak eta Egoitz Gorostidik osatutako hirukoitea. Beste taldeetako partaideak Beñat Goitia, Gorka Senpereña, Andres Rodriguez, Joseba Gailluralde, Imanol Irazustabarrena eta Manol Zubeldia izan ziren. Ederki asko jokatu zuten denek ere, baina batek

EMAITZAK ▶

Prebenjaminak (2. mailako haurrak; hiru neska).
M. Tolosa-I. Amundrain 10 / G. Altuna-A. Arandia 5.

Benjaminak (3. eta 4. maila). E. Sagastume-A. Zabala 12 / B. Beloki-X. Jauregi 3.

Alebinak (2. eta 6. maila). I. Artola-U. Urretabizkaia 14 / B. Amiano-A. Murua 7.

Infantilak (DBHko 1. eta 2. maila). D taldea 18; B taldea 15; A taldea 12.

bakarrak eraman zezakeen txapela. Dena dela, denek jaso zuten saritxoa; izan ere, askari ederra eman zieten partaide guztiei: 64, denera.

Txapelketa hau aurrera eramateko buru-belarri lanean aritu da Intxurre Pilota Eskola. Alegiako Udalararen, Alegiako eta Amezetako Guraso Elkartearen, Kutxaren, Euskadiko Kutxaren, Onda harategiaren, Jubilatua, Letamendia, Eizmendi eta Etxeberria edaritegien eta Esnazuren laguntza jaso du.

AMEZKETA ▶

Euskara Elkarteak hirugarren aldiz bilduko da

Hurrengo ostiralean, hilaren 20an, balio anitzeko gelan, Euskara Elkarteak deituriko hirugarren bilera egingo dute Amezetan. 19:00etan izanen da, eta bertan asmoak, ideiak eta proposamenak jasoko dituzte, emandako aurrerapausoak plazaratzeaz gain. Euskara elkarteak irekia da, eta bilerara herriko edozein ager daiteke.

ALEGIA ▶

Binakako Pilota Txapelketarako dena prest

28 bikoteek eman du izena Alegiako binakako Pilota Txapelketan. Hilaren 21ean emango diote hasiera, 15:30ean, eta apirilaren hasieran amaituko da. Taldeen jokatzeo egunak nahiz orduak txostentxo batean daude, eta bikoteek Kultur Etxean izango dute eskuragarri. Bikote bakoitzak 10 euro ordaindu beharko ditu otsailaren 12a baino lehen. Partida bakoitza 18 tantora jokatuko da, pilota bigunaz. Orotara, 7 jardunaldi jokatuko dituzte, eta bakoitzean bikote batek atsedena izango du. Sariak lortutako diruaren arabera izango dira, baina afariaren bat eta txapeldunentzat txapelameteo asmoa dute.

Zatoz larunbatean!
hilak 14, 17:00etan,
Tolosako Berdura Plazan
egingo den
jaialdi-meriendara!

Nola ikusten duzu zure herria?

HITZAK eta Tolosako Alde Zaharreko Merkatariek
zuen marrazkiak saritu nahi dituzte



- | | | |
|--|---|--|
| • BAZAR AMIANO KORREO, 44 | • SHANTI KIROLAK RONDILLA, 11 Bis | • GORROTXATEGI GOZOTEGIA PLAZA ZAHARRA, 7 |
| • DAKARO KORREO, 50 | • BERMUDEZ FRUTATEGIA RONDILLA, 19 | • ARANBURU LIBURUTEGIA SOLANA, 7 |
| • MAITE GOXOKIAK KORREO, 19 | • MUÑAGORRI HARATEGIA RONDILLA, 5 | • OGI-BERRI ESKOLAPIOETAKO LORATEGIAK, 1 |
| • IRURA OKINDEGIA KORREO, 50 (kaletartean) | • KINU RONDILLA, 17 | • OGI BERRI NAGUSIA, 13 |
| • ALTUNA HARATEGIA KORREO, 44 | • ALEJANDRO GOYA HARATEGIA RONDILLA, 23 | • NATURAL BODY - B. COLLADO NAGUSIA, 25 |
| • SUKIA HARATEGIA KORREO, 39 | • XIRIMIRI TXOKOLATEGIA ERREMENTARI, 40 | • KIMETZ NAGUSIA, 23 |
| • LA CASA AZUL KORREO, 21 | • INTERFILM ERREMENTARI, 44 | • GORROTXATEGI DIETETIKA NAGUSIA, 2 |
| • OGI ONA KORREO, 37 | • LIZARRALDE HARATEGIA ERREMENTARI, z/g | • PIRULO'S LEITZA z/g |
| • NOOR KORREO, 16 | • BILINTX LIBURUDENDA AROSTEGIETA, z/g | • EDEL LIBURUDENDA LEITZA z/g |
| • EZEIZA GOZOTEGIA RONDILLA, 34 | • ZUNBELTZ DISKAK AROSTEGIETA, 9 | • EL BACALAO GOXOKIAK KORREO, 51 (KALETARTEAN) |
| • ALDE ZAHARREKO OSTALARIEN ELKARTEA | | |

HITZA eta Tolosako Alde Zaharreko merkatariek elkarlanean antolatutako ekimena da.

ELDUAIN ▶ ERREMONTISTA

IÑIGO TERRADILLOS

Gaur erabakiko da Hernaniko Galarreta pilotalekuan aurten go Binakako Faustino erremonte Txapelketa. Lau erremontista ariko dira lehia eta, horien artean, Patxi Zeberio elduaindarra. Auzmendirekin osatuko du bikotea, eta Ezkurra eta Ion mendeen hartzen saiatuko dira txapela lortzeko azken helburuarekin.

Lau kirolariak herenegun egin zuten finalerako pilota aukeraketa, eta denak ere gustura geratu ziren. Antzerako pilotak eta finalerako ohikoak direnak aukeratu zituzten bi bikoteek, bote gutxiak eta oso indartsuak, azpitik izugarri ibiltzen direnak. Bestalde, finalak ez du faborito argirik, eta dirua oso parean izango omen da. Eta ez da harritzekoa, maila handikoak baitira, bai aurrelariak bai eta atzelariak ere.

Elduaindarrari dagokionez, lau final ditu jokatuak eta lauetan txapeliduna izan da. Iaz Urrutiarekin irazi zuen txapelketa, eta 2003an Auzmendirekin. Gaurkoan ere txapela lortuko balu Elizalde duen errekorra berdinduko luke. 16:00-etan hasiko da jaialdia Galarretan, gazteen arteko partidarekin. Horren ostean jokatuko dute finala, eta orduan jakingo da Elduaingoak marka hori berdintzen duen.

Binakako Faustino Txapelketa erabakiko da gaur Galarretan

Zeberio II.a eta Auzmendi Ezkurra eta Ion osaturiko bikotearen aurka lehiatuko dira txapela nork jantzi



Ezker-eskuin: Zeberio II.a, Auzmendi, Ion eta Ezkurra, herenegun, Galarreta pilotalekuan, gaurko finalerako pilotak aukeratu ostean. JON URBE / ARGAZKI PRESS

PATXI ZEBERIO ▶ ERREMONTISTA

«Txapela janztea da gure asmoa, eta ez badugu lortzen maila ona eskainita izan dadila behintzat»

Txapelketako finalaren atarian hura eta Auzmendi itxaropenetsu daudela azaldu dio HITZARI Patxi Zeberio. Galdu hala irabazi, ondo jokatzeko da bere nahia.

Nola ikusten duzue gaurko finala?

Bai Auzmendi eta bai ni maila onean iritsi gara finalera, eta biak ere ilusio handiarekin

gaude. Guztia emango dugu finala irabazteko.

Lehenengo finaleko ilusio bera al duzu?

Bosgarren finala dut hau, eta denetan ere ilusio oso handia izaten da niretzat; izan ere, puntu honetara iristeko lan handia egin beharra dago.

Txapela berriro ere janzteko itxaropen handia duzu.

Hala da. Irabazteko asmoarekin joango gara, aukera handiak ditugula uste baitugu, eta ez badugu lortzen pena handia litzateke. Hala ere, ondo jokatzeko eta ikuskizun polita eskaintzea da gure helburua; eta, galtzen badugu, maila handia emanda izan dadila.

Txapela eskuratzeko Koteto Ezkurra bezalako arerio go-

gorra gainditu beharko duzue, baina.

Koteto Ezkurra da ditugun bi aurkarietan indartsuena gure ustez. Gure asmoa hari pilotak kentzea izango da, eta Ion kargatzea. Baina honekin ez dugu esan nahi horretara mugatuko garenik; aukera dudanean, behintzat, tantoa egiten saiatuko naiz.

LEABURU-TXARAMA ▶

Txaramako elkartean batzarra bihar

Txaramako elkartean bihar egingo dute urteko batzarra, 11:00etan. Bertako bazkideek batzarrean parte hartzea eskatu dute.

PILOTA ▶

Aurrera-Saiaz eta Beotibar taldeen partidak gaur

Gaur, 11:00etan, Tolosako Beotibar pilotalekuan, lehenengo mailako senior partida jokatuko dute Aurrera-Saiaz pilota eskolako Unai Otxalok eta Julen Mujikak Azpeitiko Ilumpe eskolako pilotarien aurka. Ondoren 2. mailako seniorren partida izango da ikusgai. Kasu honetan, Aurrera-Saiazeko Igor Aranzabe eta Aimar Galarreta ariko dira Bergarako eskolako pilotarien aurka. Bestalde, Euskal Herriko Kluben arteko Zesta-Punta Txapelketaren baitan, 11:30ean, Berriatua 2ren eta Beotibar 2ren arteko partida izango da Berriatua Mendibarren pilotalekuan.

IBARRA ▶

Sendi Ekintzaren batzarra egingo dute gaur

Gaur burutuko dute Sendi Ekintza elkartean urteko batzarra. Lehenengo deialdia 19:30ean izango da, eta bigarrena 20:00etan. Duen garrantziagatik parte-hartzea eskatu dute eta, gainera, azaltzen direnek zozketa batean parte hartuko dutela azaldu dute. Bestalde, bazkide egiteko edo giltza jasotzeko hileroko lehen astelehenean egiten diren bileretara azaldu behar dela zehaztu dute arduradunek.

zuhaitzi
Zurgindegia

Egurrezko leihoak, kontraleihoak, atek eta eskaierak neurria

JANTZI ZURE ETXEA EGURREZ

Tel.: 943 67 36 11 • Faxa: 943 67 36 55
"Cuatro vientos" Industrialdea, 1
Txarama auzoa • 20491 Leaburu

Mahala
BASERRIKO PRODUKTU NATURALAK

Jogurta

Mahala baserria - 20491 LEABURU
Tel.-Faxa: 943 673 499
Tel. Mug.: 689 805 633

ARAMBURU

Salgai (Tolosa). Pisu igogailuarekin Larramendi kalean 112m². Bista zoragarriak.
Salgai (Berrobi). Pisu, barazta eta babda. 168.000€
Salgai (Tolosa). Pisu Laskorain kalean. Guztiz berria.
Salgai (Tolosa). Pisu zoragarria Laskorain kalean.
Salgai (Tolosa). Lokal komertzialak Nagusia kalean eta Bejate ibilbidean.
Salgai (Tolosa). Garaje itxia Plaza zaharrean.
Salgai (Tolosa). Garaje irekia Pedro de Tolosa pasealekuan.
Alokatzeko (Arribas). 2 logelako pisua, Tolosatik 17km-tara.
Alokatzeko (Amezketeta). 3 logelako pisua, atzairu eta garajearekin.
Alokatzeko (Amezketeta). 3 logelako pisua, atzairuarekin.
Alokatzeko (Tolosa). Pisu Rondilla kalean.

943 65 17 13 / 677 46 09 16

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Etxebizitza. Leitzan, 100 m² dituen etxebizitza salgai, igogailua eta trastelekuarekin. Eguzkitsua. Interesatuak deitu 699 46 13 65 telefono zenbakira.

Etxebizitza. Altzun etxebizitza bifamiliar berria salgai. 200 m²-koa. 160 m² dituen lorategia. Interesatuak deitu 652 77 79 59 telefono zenbakira.

EKONOMIA ▶

Laneko eta familiako bizitzak bateragarri egiteko laguntzak

Cederna-Garalur agentziak eman du aukera honen berri, «emakumeak lan munduan sartzeko laguntza» delakoan

JAIONE ASTIBIA

Cederna-Garalur zonaldeko garapen agentziatik jakinarazi dute Nafarroako Gobernuak egin berri duen deialdi honen berri; batez ere «emakumeak lan mundura sartzeko beste bide bat izan daitekeel, garrantzitsua da», baieztatu zuten.

Horrela, «emakumeak lan munduan sartu eta laneko bizitza eta familiakoa bateragarri egitea» ahalbidetzeko diru la-

guntzei buruzko informazioa helarazi dute. Bertan azaltzen denez, «beren kabuz lanean ariki, jaiotza edo 6 urtez beheko haur baten adopzioa dela eta lanaldi erdia egiteko aukera, edo lan kontratuaren suspentsioa edo eszedentzia hartzen duten laguntzat edota kasu horietako ordezkapenak egiteko emakumeak hartzen dituzte enpresentzat» zuzendutako diru laguntza da hau.

Programa honetaz baliatze-ko eskaerak egiteko epea hil honen 31n bukatuko da, eta Nafarroako Lan Zerbitzuan edo Nafarroako Gobernuko edozein Erregistro Bulegotan aurkez daitezke. Edozein moduz, informazio gehiago jakin nahi izanez gero (dokumentazioa, zenbakekoak...) 848 424 454 telefono zenbakira deitzea nahikoa da, edo garapen agentziarekin harremanetan jartzeko ere bai.

PILOTA ▶

Herrian eta kanpoan, txapelketaz txapelketa

Kirol Jokoetan, Euskal Herriko Ligan... Aurrerako pilota eskolan lanean darraite

J. ASTIBIA

Asteburua iritsi da eta, ohitura duten moduan, Leitzako eta Aresoko pilotari gaztetxoak, eta euren gurasoak ere, aztarrika dabilta han-hemen.

Horrela, gaur goizean joan badira batzuk, Lizarrara, Irurtzunera, Mutilba Behitira hainbat lagun. Eta arratsaldean ere, Euskal Herriko Ligako partidua dituzte Gasteizko Adurtzan.

Horiek gaurkoak, eta bihar ere beste hainbeste partidua baino gehiago ikusteko aukera izanen da, honetakoan Amazabal pilotalekuan bertan, 10:00etan hasita. Kirol Jo-

koen barranean hiru partidua izanen dira, bata Mikel Sagastibeltza Eguesek eta Mikel Sagastibeltza Lasartek, Atarraikiako Betionak-ekin; bestea, Julen Goikoetxeak eta Iñaki Saralegik Lodosaren aurka; eta Markel Barriolak eta Martxel Kalongek, Lizarrarekin. Euskal Herriko Ligan, kadetako partidua jokatuko dute Aritz Sagastibeltzak eta Oihan Alduntzinek, Berrizkoen aurka. Eta jaialdia bukatzeko Kopa Torneoko beste bi partidua izanen dira: Aitor Goikoetxea-Josu Betelu eta Xabier Alustiza-Miguel Olano Doneztebekoen eta Altsasukoen aurka ariko dira.

LEITZA ▶ IHOTEK

Ihoteetako otorduetarako, larunbata eta iganderako, txartelak salgai daude

Epea 18an bukatuko da eta «zorrotz» jokatuko dute horrekin

J. ASTIBIA

Hurrengo asteburuan hasiko diren ihoteetako larunbateko eta igandeko otorduetarako txartelak salgai jarri dituzte dagonekoz.

Larunbatean, hilbeltzaren 21ean, Erreka sagardotegian bertso afaria izanen da,

21:30etik aurrera, Unai Elizasu, Diego Riaño eta Miel Mari Elozegi bertsolariak bertan direla. Menua, «urdaiazpikoa eta entsalada, bakailo tortila, txuleta eta postrea» izanen da, ohiko ardo, sagardo, kafe eta kopa lagun. Txartelak, Torren eta Gaztañagan daude salgai, 27 euroren truke.

Igandekoak ere balio bera dute eta Txokon eta Peritzan daude salgai. Hau 14:30ean, Erletako eskolako jantokian izanen da. Jakiak, berriak, honakoak: urdaiazpikoa, zainzuriak, otarrainskak, frijituak, bakailo Bizkaiko erara, entrekota guarnizioarekin, goxua edo sorbetea, eta bukaerakoak.



lazio Ihoteetako irudi bat. J. A.

Txartelak hartzeko epea 18an, asteazkenean, bukatzen da eta «oso zorrotz» jokatuko dutela jakinarazi dute.

LEITZA ▶

Bide Eginez batzarra gaur bertan, 18:00etan

J. ASTIBIA

Gaur, larunbata, 18:00etan, Aurreran eginen du Bide Eginez prozesuko hirugarren batzarra Leitzako Batasunak.

«Batasuna aurrera», «zuzenketak» eta «Mahai Nazionalaren aukeraketa» izanen dituzte gai gaurkoan.

hitza **txokoa** *lagunen*

▶ HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA izango duzuzure EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beharapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

▶ Txartela HITZAREN harpidedun ordaintzaileek bakarrik eskuratuko dute; deitu 943 30 43 46 telefono zenbakira

Egin zaitez harpidedun!

DENDA HAUEK HITZA-REN LAGUNTAILEAK DIRA

Avalon
o s a g a i a k
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

honekin
TOLOSA
Tel.: 943 67 22 44

kanikak
San Frantzisko, 21 • Tolosa
Tel.: 943 65 27 46

Gudari kalea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 65 04 62

ILUMINAZIOA

SHANTI KIROLAK
Rondilla, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 40 74

MUGAR
Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA
Tel.: 943 65 56 85

LIZARRIBAR
OINETAKOAK
Arostegieta kalean
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAREN harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Amezketak. Bide Eginez batzarra. Bihar, 12:00etan, balio anitzeko gelan.
Anoeta. Bide Eginez batzarra. 10:00etan, Kultur Etxean.
Asteasu. Bide Eginez prozesuaren batzarra. 11:00etan, Kultur Etxean.
Orendain. Bide Eginez batzarra. Bihar, 11:00etan, udalekian.
Tolosa. HITZAK eta Alde Zaharreko Merkatariek antolatutako jaialdi-merienda eta marrazkiak bidali dituzten haurrentzako opari zozketa. 17:00etan, Berdura plazan.
Tolosa. Udaberri-ren bilera, 50. urtemugaz. Etzi, 20:30ean, egoitzan.
Tolosaldea. Tolosaldeko gazteria independentziara marxan lelopean, martxa. Villabonako plazan hasita, 15:00etan; Zizurkil, Anoeta eta Tolosa igaro eta Ibarra amaituko da. 20:00etan, manifestazioa bertan. Ondoren, afaria Xeplan. Gero, Potemkin eta beste hainbat talde, Gaztetxean.
Zizurkil. Bide Eginez batzarra. 10:00etan, Iriarte kultur etxean.

MUSIKA

Tolosa. Asgarth. 22:30ean, Bonberenean.
Tolosa. D, Callao talde. 23:30ean, Frontoen.

ZINEMA

Alegia. Obaba. Bihar, 19:30ean, zinema aretoan. Euskaraz.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Ibarra. Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 67 09 15.
Leitza. Plaza, M. Elbarren, 36. 112.

IRRATIA

Txolarre Irratia (107.5 FM - 101.2 FM)
10:30-13:00. *Hitza* hegazti magazinaz: elkarrizketak, Mundurako leihoa, kolaboratzaileak, agenda, porra, disko eskainiak...

Goiko Irratia (107 FM)
13:00. *Komerra* magazinaz. Posta elektronikoa: komerra@hotmail.com.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

Leitza, Amezketak eta Tolosa

I. MARRAZKI LEHIAKETA ▶ Beren herrietako txokoak eta Gabonetako irudiak jaso dituzte Garazik, Leirek, Iratxek eta Aitorrek egindako marrazkietan



LEITZA ▶

Garazi Erbiti Goienetxe (11 urte, Leitza).
«Gure herrira urtero etortzen da Olentzero guri opariak banatzera, eta opari asko ekartzen dizkiugu», dio gure lagun leitzarrek.



LEITZA ▶

Leire Erbiti Goienetxe (5 urte, Leitza).
Leirek *Olentzero lanean* jarri dio izenburu egindako marrazkiari.



TOLOSA ▶

Iratxe Arregi (7 urte, Tolosa).
«Gustatuko litzaidake Oriaren errekan barkuak egotea».



AMEZKETA ▶

Aitor Goikoetxea (6 urte, Amezketak).
Bere marrazkia halaxe azaldu digu Aitorrek: «Nire etxea margotu dut eta ondoan ikusten dena, Txindoki eta parkea».

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Eloy Iglesias (Ibarra).
Gaur 9 urte. Zorionak zure arreba Zuriñe eta familiaren partetik.

HITZA, zorion agurren tartea
Urtebetetzeak, urrezko etzeiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:
HITZAren egoitzetara: Araba etorbidea 5, behea - TOLOSA Udalekuko bulegoa - LEITZA
Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri. Mila esker!



URTE ASKOAN
Energiz Iraola Sorrondegi.
Bihar 3 urte.
Zorionak Urkizu-Lasarte familiaren partetik.